

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZA ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

Euskara Zerbitzua

Merkataritza arloan euskararen presentzia sustatzeko diru laguntzen udal programaren deialdiaren ebazpena

Vitoria-Gasteizko Udalaren 2021eko dirulaguntzetarako deialdiak arautzeko oinarri orokorretako 9.2 artikulua betez, Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko azaroaren 19an hartutako erabakiaren berri ematen zaie interesdunei. Bertan, Merkataritza arloan euskararen presentzia sustatzeko dirulaguntzen udal programaren deialdia ebazten da. Hala dio ebazpen berriak:

Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko uztailaren 9an egindako ohiko bilkuran, merkataritzaren arloan euskararen presentzia sustatzeko dirulaguntzen deialdiaren oinarriak onartu ziren. Deialdiak 6.000 euroko aurrekontua izan du, 2021/0171.3351.48005 partidaren kargura. Deialdiaren oinarriak ALHAOn argitaratu ziren 2021eko uztailaren 30ean.

Onuradun izan zitezkeen 2020ko irailaren 1etik 2021eko abuztuaren 31ra bitartean diruz lagundutako lanak egin dituzten pertsona fisiko edo juridikoak, baldin eta Vitoria-Gasteizko udalerrian badute egoitza eta merkataritza-jarduera.

Eskabide hauek jaso dira, dagozkien fakturekin:

SALTOKIA	KONTZEPTUA	FAKTURAK
Café Ed(3)n	Bai Euskarari 2 faktura	242,00
Ama Orea SL	Bai Eusk.	273,46
Argi	Bai Eusk.	121,00
Arlekin Vitoria SC	Bai Eusk.	137,94
Delabor Asesoría SL	Bai Eusk. + Materiala	1.547,59
Doitu Ofimatika SL	Bai Eusk.	205,70
Perfumería Rizmil Tres	Bai Eusk.	137,94
Galemys SL	Bai Eusk.	341,22
Galburuxka SL	Bai Eusk.	324,28
Giro Erdian SL	Bai Eusk.	205,70
IG Karratu Arkitektura S coop.	Bai Eusk.	154,88
Instituto Europa SL	Bai Eusk.	408,98
Carnicería Etxabe SC	Bai Eusk.	137,94
Bar Restaurante el 7 SL	Bai Eusk.	125,04
Koxka Swetty SL	Bai Eusk. + Materiala	1.493,14
Lizarralde soinua txalaparta SL	Bai Eusk.	154,88
Loinaz Mobiliario SC	Bai Eusk. + Materiala	262,75
Larruki	Bai Eusk.	137,94
Multilan AYG SL	Bai Eusk.	307,34
Dolomiti Galdos SL	Bai Eusk.	273,46
Teklak. Estudio de comunicación y audiencias SC	Bai Eusk.	137,94
Suministros Uriarte SA	Bai Eusk.	324,28

SALTOKIA	KONTZEPTUA	FAKTURAK
BCR Virgen Blanca SC	Bai Eusk.	119,39
Farmacia Leire Zulueta	Bai Eusk. + Materiala	3.337,17
Emaize Sexologia Zentroa	Bai Eusk.	188,76
La Globeria SC	Bai Eusk.	121,00

Deialdiaren oinarrien arabera, Udalak gastuaren ehuneko 50 diruz laguntzen du, 600 euroko mugara arte, edo ehuneko 75 Bai Euskarari ziurtagiriaren kasuan, 450 euroko mugara arte.

Euskara Zerbitzuak, 2021eko urriaren 14ko txostenean, dirulaguntza emateko proposamena egin zuen horretarako eraturako organoaren bidez.

Kontuan hartuta, deialdi hau arautzen duten oinarrietan xedatutakoa.

Kontuan hartuta, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta lege horren erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan, Toki Korporazioen Zerbitzuen Erregelamenduaren 23. artikuluan eta hurrengoetan eta Dirulaguntzei buruzko Udal ordenantzan araututakoa. ordenantza hori Vitoria-Gasteizko Udalaren Osoko Bilkurak onetsi zuen 2005eko ekainaren 17an, eta ALHAOn argitaratu zen, 5. zenbakian, 2006ko urtarrilaren 13an.

Ikusirik, batetik, Alkatzaren Dekretua, 2020ko urriaren 1ekoa, eskumenak eskuordetzeari buruzkoa; eta bestetik, Dirulaguntzei buruzko Udal ordenantzaren 5.1 artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legearen 127.1.g) artikulua; Alkatzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zinegotzi delegatuak Tokiko Gobernu Batzarrari honako hau proposatu dio:

Erabaki proposamena

Lehenengoa. Merkataritzaren arloan euskararen presentzia sustatzeko dirulaguntzen deialdiaren ebazpena onartzea, eta, beraz, dirulaguntza hauek ematea, 2021/0171.3351.48005 aurrekontu-partidaren kontura:

SALTOKIA	DIRULAGUNTZA
Café Ed(3)n	181,50
Ama Orea SL	205,10
Argi	90,75
Arlekin Vitoria SC	103,46
Delabor Asesoría SL	766,98
Doitu Ofimatika SL	154,28
Perfumería Rizmil Tres	103,46
Galemys SL	255,92
Galburuxka SL	243,21
Giro Erdian SL	154,28
IG Karratu Arkitektura S coop.	116,16
Instituto Europa SL	306,74
Carnicería Etxabe SC	103,46
Bar Restaurante el 7 SL	93,78
Koxka Swetty SL	766,98
Lizarralde soina txalaparta SL	116,16
Loinaz Mobiliario SC	161,63
Larruki	103,46
Multilan AYG SL	230,51
Dolomiti Galdos SL	205,10
Teklak. Estudio de comunicación y audiencias SC	103,46
Suministros Uriarte SA	243,21

SALTOKIA	DIRULAGUNTZA
BCR Virgen Blanca SC	89,54
Farmacia Leire Zulueta	741,57
Emaize Sexologia Zentroa	141,57
La Globeria SC	90,75
TOTAL	5.873,02

Bigarrena. Interesdunei ALHAOn argitaratzearekin ebazpen honen berri ematea. Jakinaraztea, halaber, erabaki honek agortu egiten duela administrazio bidea, eta berorren kontra zuzenean aurkeztu ahal izango dela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Gasteizko Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte edo argitalpen egunaren biharamunetik kontatuta.

Nolanahi ere, alde zuzenetik Aukerako Berraztertze Errekurtsoa aurkez daitezke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori espresuki edo ustez ebatzi arte—. Ondoren, berariazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, edozein unetan aurkeztu ahal izango da, araudi espezifikoaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera. Dena den, interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete, nahi badute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

Hirugarrena. Dagokion informazioa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean argitaratzea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 20. artikuluekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko azaroaren 22an

Alkatetza eta Erakunde Harremanen Saileko zinegotzi ordezkaria
RAIMUNDO RUÍZ DE ESCUDERO EZCURRA